



Goi Mailako Finantza Kontabilitatea

Izaskun Ipiñazar Petralanda

Ikasle kaiera

IKD baliabideak 7 (2014)

AURKIBIDEA

SEKZIOAREN TITULUA	iError! Marcador no definido.
1) Atal-titulua adibidea	iError! Marcador no definido.
2) Zerrenda zenbakitua (zifrak).....	iError! Marcador no definido.
3) Zerrenda ez zenbakitua.....	iError! Marcador no definido.
4) Paragrafo zenbakiak (letrak)	iError! Marcador no definido.
5) Taula orrialde bertikalean (Banda bikoitiak/bakoitiak horizontala).....	iError! Marcador no definido.
6) Taula orrialde bertikalean (Banda bikoitiak/bakoitiak bertikala)	iError! Marcador no definido.

1.- Sarrera

2.- Goi Mailako Finantza Kontabilitatea Ikasgaiaren testuingurua

2.1- OROKORTASUNAK

2.2- IKASGAIA OSATZEN DUTEN GAIAK

2.3- GAITASUNAK

2.4- IKASGAIAREN IRAKAS-METODOLOGIA OROKORRA

2.5- IKASGAIAREN EBALUAZIO-SISTEMA

2.6- BIBLIOGRAFIA

3- ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA sistemaren aplikazioa

3.1- Sarrera

3.2- Arazo egituratzailea

3.3- Ebaluazio-sistema

4.- Ikaslearentzako jarduerak

5.- Jarduerak 2. Gairako "Sozietateen Eraketa"

6- Jarduerak 3. Gairako "Kapital Sozialaren Zabalkuntza"

7- Jarduerak 4. Gairako "Kapital Sozialaren Murrizketa"

8- Jarduerak 2-3-4 Gaien Mintegietarako

1. SARRERA

Koaderno honen bidez, Goi Mailako Finantza Kontabilitatea ikasgaiari, *Araoetan Oinarritutako Ikaskuntza* inplementatzeko beharrezko jarraibideak aurkeztuko dira. Gai hauetan egingo da: 2 Gaia "Sozietate Anonimoaren (S.A.) eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen (E.M.S.) Eraketa"; 3 Gaia: "Kapital-zabalkuntzak" eta 4 Gaia "Kapital-murrizketak".

Ikasgaiaren ildo nagusiak aurkeztuz hasiko gara, ondoren, aipatutako gaietarako, arazoetan oinarritutako metodologiaren aplikazioan zentratzeko.

2. GOI MAILAKO FINANTZA KONTABILITATEA IKASGAIAREN TESTUINGURUA

1) Orokortasunak

Unibertsitatea	UPV/EHU	Zentroa	Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (Bilbo)	
Gradua	Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza			
Saila	Finantza Ekonomia I			
Ikasgaia	GOI MAILAKO FINANTZA KONTABILITATEA	Kurtsoa	2.	
Lauhilekoa	2.	Kredituak	6	
Taldea	31	Aurreikusitako ikasle-kopurua	60	

Irakaskuntza Modalitate bakoitzeko orduak			
Eskola Magistralak	Gelako Praktiak	Mintegiak	GUZTIRA
42	9	9	60

Oharra: eskola saioak 90 minutukoak izango dira.

Irakaskuntza Modalitate bakoitzeko ikasleak		
Eskola Magistralak	Gelako Praktiak	Mintegiak
60	30	30

Goi Mailako Finantza Kontabilitatea ikasgaia Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako GRADUKO 2. kurtsoan ematen da eta ikasgai ardatza da. Ikasleek, aurrez, "Kontabilitaterako Sarrera" eta "Finantza Kontabilitatea" ikasi dute 1. mailan; badituzte, beraz, aurretiko oinarritzko ezagutzak.

2) Ikasgaia osatzen duten gaiak

1 Gaia.- Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-Orria

1. ZATIA: Ondare Garbiaren Eraketa eta Aldaketa

2 Gaia.- Sozietate Anonimoaren (S.A.) eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen (E.M.S.) Eraketa

3 Gaia.- Kapital Sozialaren Zabalkuntza

4 Gaia.- Kapital Sozialaren Murrizketa

5 Gaia.- Negozio-konbinazioa

6 Gaia.- Ekitaldiko Emaitzaren Kalkulua

2. ZATIA: Finantza Tresnak eta Atzerri Moneta

7 Gaia.- Finantza Tresnak: Finantza Aktiboak

8 Gaia.- Finantza Tresnak: Finantza Pasiboak

9 Gaia.- Atzerri Monetaren Kontabilitate Tratamendua

3) Gaitasunak

✓ **Titulazioaren gaitasun orokorrak ikasgaiarekin zerikusia dutenak:**

- Iturri desberdinetatik datorren informazioa bilatzen, identifikatzen, aztertzen eta sintetizatzen jakin, gaitasun kritikoaz enpresaren egoera eta aurreikus daitekeen etorkizuna baloratzeko, epai arrazoituak egiteko eta erabakiak hartzeko izaera ekonomiko-enpresarialeko gai garrantzitsuen inguruan. (G003-MEC3).
- Edozein txosten argi eta koherentziaz egin, eman eta aurkeztu enpresa barruko alderdi eta egoerei buruz eta beste enpresa eta merkatu batzuetako egoera jakinei buruz (erabaki egokiak hartzen lagunduko dutenak), bai publiko espezializatuari eta bai ez espezializatuari. (G004-MEC4).
- Ikaskuntza-trebetasunak garatu autonomia-maila altua lortzeko, bai ondorengo ikasketei ekiteko, eta bai auto-prestakuntzari begira, aldaketak eta berrikuntzak etengabe bizi izaten dituen esparru honetan. (G005-MEC5).

✓ **Ikasgaiaren gaitasun espezifikoak:**

- Trebetasunik zehatzenak eskuratu kontabilitate-ereduaren funtzionamenduaz.
- Kontabilitate-eragiketa desberdinen ulerkuntzan sakondu ondare garbia zehazteko.
- Finantza-tresnak gauzatzen diren kontabilitate-eraginak aztertu.
- Ezagutu zein den araudi aplikagarria, enpresek egin ditzaketen ondare garbiaren eragiketak baloratzeko eta kontabilizatzeko.

4) Ikasgaiaren irakas-metodologia orokorra

✓ **Eskola Magistralak:**

Oinarrizko kontzeptuen, tresnen eta tekniken azalpena eta garapena, guztiak ere ikasleak ezagutu beharrekoak, jarritako ezagutza-helburuak lortze aldera.

✓ **Gelako Praktiak:**

Arazoak eta suposaketak proposatu eta ebatzi, eskola magistraletan landutako kontzeptuak finkatzeko helburuz. Horretarako, suposaketa praktikoak proposatuko dira; batzuk eskola orduetan ebatziko dira eta beste batzuk gelatik kanpo ebatziko ditu ikasleak.

✓ **Mintegia:**

Taldekako lana. Bertan, ikasleek benetako enpresa baten Urteko Kontuen Memoria aztertuz, ikasgaiaren azaldutako edukiei buruzko informazioa aplikatuko dute kontabilitate idazpenak berreraikitzen. Horretarako, ezinbestekoa da eskola magistraletan emandako materia menperatzea, teoria mailan.

5) Ikasgaiaren ebaluazio-sistema

Ikasgia gaitu ahal izateko, honako probak eta lanak hartuko dira kontuan:

- Idatzizko azterketa.
- Ariketa praktikoak ebatzea (ariketak, kasuak edo arazoak)

ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA APLIKATU DUTEN TALDEETAN SOILIK HARTUKO DA KONTUAN ARIKETEN EBAZPENEA.

- Talde-lana
- Lanen aurkezpena

Aurreko frogak honela ebaluatuko dira:

Proba	Azalpenak
Idatzizko azterketa, garatzekoa	<ul style="list-style-type: none"> • %70eko balioa izango du, eta ikasgaiaren jorratutako gai desberdinak agertuko dira. • Bi azterketa/kontrol egingo dira.
Ariketa praktikoaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • PUNTU BATEKO balioa izango du (%10). Gehienez, metodologia berria aplikatutako gai bakoitzeko praktika bat egingo da eta gutxienez bi. Puntuazioa, egindako ariketetan lortutako notaren batez bestekoarekin lortuko da.
Talde-lana eta aurkezpena	<ul style="list-style-type: none"> • %20ko balioa izango du. • Puntuazioan kontuan izango da egindako lana (idatzizko txostena) eta bere aurkezpena. <p>Aurkezpenean irakasleak/ikasleak galderak egin ditzakete.</p>
Ezinbestekoa izango da azterketa idatziak gaitzea atal guztien batuketan egiteko eta ikasgia gaitzeko.	

6) Bibliografia

✓ Oinarrizko bibliografia:

- KONTABILITATE PLAN OROKORRA 2007 (ERREGE DEKRETUA 1514/2007, azaroaren 16koa, Kontabilitate Plan Orokorra onartzen duena).
- ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN KONTABILITATE PLAN OROKORRA ETA MIKROENPRESETARAKO KONTABILITATE IRIZPIDE ESPEZIFIKOAK (1515/2007 Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Enpresa Txiki eta Ertainen kontabilitate plan orokorra eta mikroenpresetarako kontabilitate-irizpide espezifikoak onartzen dituena).

✓ Bibliografia gehigarria:

- ALONSO PEREZ, A.; POUSA SOTO, R. (2007). Casos prácticos del nuevo Plan General de Contabilidad. Borrador. Madril, CEF Edizioak.
- CARRASCO, A. ETA BESTE BATZUK Estados Financieros Piramide Ed., 2009
- CASTRILLO LARA, L.A. (koordinatzailea) (2008): Plan General Contable 2007. Aplicación de las normas de valoración. (Iruzkinak eta kasu praktikoak). Delta Ed. Publicaciones Universitarias.
- MALLO, C.; PULIDO, A. (2006): Normas Internacionales de Información Financiera (NIIF). Madril, Thomson Editores.
- WANDEN-BERGHE LOZANO, J.L. ETA BESTE BATZUK, Contabilidad Financiera, Piramide Ed., 2008.

✓ Link interesgarriak:

- ACCOUNTING EDUCATION: <http://www.accountingeducation.com/news/index.cfm>
- ESPAINIAKO BANKUA: <http://www.bde.es>
- BALIO MERKATUAREN BATZORDE NAZIONALA: <http://www.cnmv.es>
- CINCO DIAS EGUNKARIA: <http://www.cincodias.com/>
- IAS PLUS: <http://www.iasplus.com/index.htm>
- ICAC <http://www.icac.meh.es>
- PRICEWATERHOUSE COOPERS <http://www.pwc.com/ifrs>
- EUROPAR BATASUNA: <http://www.ec.europa.eu/internalmarket/accounting/index-en.htm>

3- ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA SISTEMAREN APLIKAZIOA

1) Sarrera

Arazoetan oinarritutako prozeduraren ezarpena Goi Mailako Finantza Kontabilitatea ikasgaiaren, segidako gai hauetan aplikatuko da:

2 Gaia "Sozietate Anonimoen (S.A.) eta Erantzukizun Mugatuko Sozietateen (E.M.S.) eraketa";

3 Gaia: "Kapital Sozialaren Zabalkuntza";

4 Gaia: "Kapitalaren Sozialaren Murrizketak".

2) Arazo egituratzailea

Enpresa bateko bazkideek bere eraketan jarritako hasierako kapitalean, eman daitezke aldaketak?

PLANTEAMENDUA:

Sozietate anonimoak eratzen direnean, ondarea (enpresaren aberastasuna kontabilitate-balioan islatzen duen partida) kapital sozialak eta primak osatua dago, akzioak bere balio nominalaren gainetik jaulki badira. Kapital kopuru hau balio finkoa da.

Enpresa bere jarduera gauzatzen joan ahala, une jakinetan, zenbait proiektu burutu nahi izango ditu, esate baterako: merkatuan hedatu, merkatu berrietara ireki, produktu berriak fabrikatu, ekoizpen-maila handitu, higiezin berri batean inbertitu, etab. Proiektu hauek aurrera eramateko finantza-baliabideak behar dira.

Beste batzuetan, enpresaren bilakaera ez da ona izan eta, agian, galerak pilatu ditu aurreko urteetan, finantza- eta ondare-desoreka egoeran aurkituz. Kasu hauetan, enpresaren jarduerarekin jarraitu nahi izanez gero, nahitaezkoa da finantza-baliabideak lortzea.

Arrazoia edozein izan daitekeelarik, enpresak finantza-baliabide hauek eskuratzeko dituen aukera desberdinak aztertu nahi dira, aukera bat kapital soziala gehitzea edo murriztea izanik.

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

Arazoetan oinarritutako ikaskuntzaren inplementazioak bilatzen du ikaslea, metodologia aktiboen bidez, gai izatea, aurkeztutako planteamendu eta arazo egituratzaileari dagokionez, honako ondorio hauetara iristea:

- Sozietateek gehitu eta murriz dezaketela euren kapital soziala, aldaketa hauek egin ahal izateko arrazoiak eta betebeharrak legalak ezagutzen.
- Sozietateek, finantza-baliabideak behar dituztenean, zorpetzeko aukeraz gain, beste bide batzuk ere badituztela, esate baterako, kapital soziala gehitzea.

Azken batean, ikasleak gai izan behar du:

- 1- Finantza-baliabideak behar izanez gero, zorrera edo bere baliabideetara joan daitekeela jakiteko.
- 2- Kapitalaren gehikuntza kontabilizatzeko.
- 3- Kapitalaren murrizketa kontabilizatzeko.
- 4- Kapital-partidaren zenbatekoa interpretatzeko (bazkideen ekarpena) enpresen Urteko Kontuekin lan egiten dutenean, eta baita enpresak burututako prozesua ere.

Ikasgaiaren GAITASUN ESPEZIFIKOAK	ARAZOETAN OINARRITUTAKO IKASKUNTZA 2-3-4 Gaiak
<ul style="list-style-type: none"> • Trebetasun zorrotzagoak eskuratu kontabilitate-ereduaren funtzionamenduaz. 	<p>→ Kapital mugimenduei aplikatuak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Kontabilitate-aukera desberdinen ulerkuntzan sakondu ondare garbia zehazteko. 	<p>→ Kapitaleko aldaketekin zerikusia duten kontabilitate-erregistroen tresnak maneiatu</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Finantza-tresnak gauzatzen diren kontabilitate-efektuak aztertu. 	<p>→ Kapitalaren kopuruan izandako aldaketek eragindako ondorioak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Ezagutu zein den araudi aplikagarria enpresek egin ditzaketen ondare garbiaren eragiketarak baloratzeko eta kontabilizatzeko. 	<p>→ Sozietateen Kapitalarekin erlazionatutako indarreko araudi legala ezagutu</p>

3) Ebaluazio-sistema

“JARDUERAK” atalean adierazitako jarduera ebaluagarriak, kasu honetan hiru, irakasleak “praktikak” atalean beharrezko joko dituen entregaien zati izango dira.

Ikasgai osoan, ikasleak entregaiak egingo ditu, baina hiru gai hauetan gai bakoitzeko bat egingo da eta ebaluatu egingo dira. Hiru ebaluagarrien puntuazioaren gehiengoa 1 izango da eta ikasle bakoitzak egindakoekin batez besteko nota kalkulatu da.

Hala ere, nahitaezkoa izango da azterketa/kontrol idatziak egitea eta gainditzea.

4.- IKASLEARENTZAKO JARDUERAK

2-3-4 gaietarako diseinatutako jarduerak mota hauei dagozkie:

Jarduera- mota	TA-C2	Egoera-arazo bat planteatzen du ikasleak landuko duten gaiaz jabetu daitezen.
	TA-C3	Ikasleak jardueretan murgilaraziko dituen egoera-arazoak izan dezakeen interesa aurkezten du.
	TA-C6	Ikasleei ebazteko estrategia desberdinak proposarazten dizkie, lege eta printzipioen aplikazioa barne.
	TA-C8	Helburutzat ikasitakoaren berrelkadura du, gaia bukatu arte itxoin gabe. Ebaluazio-jarduera izan daiteke.

TALDEEN OSAKETA:

Taldeka egingo diren jardueretarako:

- Taldea aleatorioki osatuko da;
- Gai bakoitzean (kasu honetan 3) talde berriak egingo dira.

Mintegiko lanerako: ikasleak beraiek izango dira taldearen osaketa erabakiko dutenak, eta lehen Mintegia igarota, ez da aldaketarik onartuko, ezohiko egoeretan izan ezik.

Guztira 16 jarduera prestatu dira:

- 2 Gaia: J1, J2, J3, J4 (Ebaluagarria).
- 3 Gaia: J5, J6, J7, J8 eta J9 (Ez-presentziazkoak), J10 (Ebaluagarria),
- 4 Gaia: J11, J12, J13, J14 (Ez-presentziazkoa), J15 (Ebaluagarria),
- Mintegietarako: J16 gai guztiekin erlazionatuta)

Jarduerek ondorengo kronograma jarraituko dute:

OHARRA: ordutegia ikasturtero aldatu egiten denez, kronograma urtero egokitu egin behar da, hala ere, Jarduerak magistral-klase bakoitzerako antolatu dira eta Ebaluagarriak gela-praktiketarako antolatu dira (gela-praktiketan ikasleak banatu egiten dira).

31 TALDEA				
1 Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	
Ikasgaiaren Aurkezpena	1. gaia (AOI ez)	1. gaia (AOI ez)	1 Jarduera	

2 Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	
2 Jarduera	3 Jarduera	4 Jarduera A Ebaluagarria	4 Jarduera B Ebaluagarria	

3 Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	
5 Jarduera	6 Jarduera	16 Jarduera A Mintegia	16 Jarduera B Mintegia	

4 Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	
7 Jarduera	10 Jarduera A Ebaluagarria	10 Jarduera B Ebaluagarria	11 Jarduera	

5 Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	
12 Jarduera	13 Jarduera	16 Jarduera A Mintegia	16 Jarduera B Mintegia	

6 Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	13.30 - 15	
15 Jarduera A Ebaluagarria	15 Jarduera B Ebaluagarria	5. gaia (AOI ez)	5. gaia (AOI ez)	

5. JARDUERAK 2 GAIRAKO "SOZINETATEEN ERAKETA"

Enpresa bateko bazkideek bere eraketan jarritako hasierako kapitalean, eman daitezke aldaketak?

Hasiera batean, Enpresen Kapital Sozialarekin zerikusia duen araudia eta eratu zeneko ondarea ezagutu behar da.

IKASLEAREN DEDIKAZIOA 2 GAIKO JARDUERETAN			
JARDUERA	PRESENTZIAZKO LANA	EZ-PRESENTZIAZKO LANA	GUZTIRA
A1	90'	60'	150'
A2	90'	60'	150'
A3	90'	90'	180'
A4	90'	0	90'
ORDUAK GUZTIRA	6 ordu	3.5 ordu	

Ikaskuntza emaitzak:

Materia:

- Baldintza Ekonomikoak Sozietate Anonimo bat eta Erantzukizun Mugatuko Sozietate bat eratzeko: kapital sozialaren gutxienerako zenbatekoa; tituluen harpidetza
- Akzioen titulartasunak ematen dituen eskubideak
- Akzio motak
- Akzioek izan ditzaketen balio desberdinak: Balio Nominala; Jaulkipen Balioa; Kotizazioa; Balio Teorikoa
- Akzioen gutxienerako ordainketa
- Ordainketak egiteko aukerak: Monetarioa eta Ez-monetarioa
- Kontabilitate- idazpenak

Zeharkakoak:

- IKTeak menperatu informazioa bilatzeko
- Talde-lana
- Hizkuntza teknikoa menperatu

Emaitzen Adierazleak:

Jarduera guztiek helburu berak dituzte, nahiz eta maila desberdinean.

1. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Bakarka eta 3ko taldeetan	
Jarduera-mota: C2, C3, C6	
Jarduera hau bateratze-saio labur batez amaituko da.	

Ez-presentziazko lana:

a) Irakurri ondorengo testu legalak:

- KPOko 2. Ataleko 9. Arauko (Finantza-tresnak) 4. Atala (ondare tresnak)
- Kapital-Sozietateen Legearen (2012/1 Errege Dekretu Legegilea, BOE 161 zk) Testu Bategineko 19-85 eta 90-125 artikulua irakurri, Sozietateen eraketaren inguruan eta, zehazki, Kapital Sozialaren inguruan (akzioak eta bere balioa), eta aipatutako kontzeptuei buruzko laburpena.

b) Adibide praktikoa aztertu, sozietatearen eraketa-eragiketa kontabilizatuz.

Presentziazko lana:

Hiruko taldeetan komentatu ideia nagusiak, ondorioak laburbilduz. Gauza bera adibide praktikorako.

Taldeak izan ditzakeen zalantzak irakaslearekin argituko dira.

Garapena:

Bakarka eta ez-presentziazko moduan, dokumentua irakurriko duzue eta adierazitako kontzeptuak laburbilduko dituzue. Adibidea ere ebatziko duzue.

Ondoren, gelan eta 3ko taldeetan, 20 minutuan eztabaidatuko dituzue landutako kontzeptuak, eta beste 30 minutuan bateratze-lana egingo da ikasle guztien eta irakaslearen artean.

Adibidearekin prozedura bera jarraituko da: 3ko taldeetan balizko irtenbidea eztabaidatuko da 20 minutuan eta bateratze-lana beste 20 minutuan.

TESTU BATEGINA IRAKURRITA, ADIERAZI KONTZEPTU HAUEK:

- Sozietate Anonimoa eta Erantzukizun Mugatuko Sozietatea eratze Baldintza Ekonomikoak: kapital sozialaren gutxieneko zenbatekoa; tituluen harpidetza
- Akzioen titulartasunak ematen dituen eskubideak
- Akzio-motak
- Akzioek izan ditzaketen balio desberdinak: Balio Nominala; Jaulkipen Balioa; Jaulkipen Prima; Kotizazioa; Balio Teorikoa
- Akzioen gutxieneko ordainketa
- Ordainketak egiteko aukerak: Monetarioa eta Ez-Monetarioa
- Kontabilitate-doikuntzak

Bi bazkidek, proportzio berdinean, **IREKI, S.A.** sozietatea sortu dute 3.000.000€ko kapitalarekin (BN= 10€, parean). Ordainketa honela egin da:

- 1) Lehen bazkideak dagokion legezko gutxienera ordaindu du eskudirutan.
- 2) Bigarren bazkideak 200.000€tan tasatutako orube bat eman du eta legezko gutxienerako falta zaion zenbatekoa eskudirutan ordaindu du.

ESKATZEN DENA: kontabilizatu, modu sinplifikatuan, sozietatearen eraketa eta egin Egoera Balantzea.

Lagun talde batek **SORTU, S.A.** enpresa sortzea erabaki du, 300.000 akzio jaulkituz balio nominalaren %120an (BN= 5€). Legeak adierazitako minimoa despoltsatuko da. Jaulkipenaren gastuak (eskriturak, erregistroa, etab) 2.000€ izan dira.

ESKATZEN DENA: kontabilizatu, modu sinplifikatuan, sozietatearen eraketa eta egin Egoera Balantzea.

2. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Bakarka eta 3ko taldeetan	
Jarduera-mota: C2, C3	
Jarduera hau bateratze-saio batez amaituko da	

Garapena:

Ez-presentziazko lanean ariketak ebatziko dituzue.

Ondoren, gelan, 3ko taldeetan 45 minutuan, proposamen desberdinak eztabaidatuko dituzue, azken 45 minutuetan bateratze-lan batez amaitzeko ikasle guztien eta irakaslearen artean.

Bi anaik **GEMELOS, S.A.** sozietatea sortuko dute. Kapital Soziala 50.000.000€, akzio kopurua 5.000.000 eta BN 5€. Jaulkipena parean egin da. Anai bakoitzak erdia harpidetzen du.

1. Anaia zaharrenak, dagokion despoltsapena eskudirutan egiten du eta legeak eskatutako minimoan gauzatzen du.
2. Anaia gazteak bere enpresa jarriko du. Enpresa hau txikia da eta mendiko bizikleten piezak egiten ditu. Negozioaren egoera balantzea ekarpena egiten den unean honakoa da:

EGOERA BALANTZEA			
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO KORRIENTEA	EZ 13.000.000	FONDO PROPIOAK	14.500.000
Lurrak	2.000.000	Kapital Soziala	6.000.000
Eraikuntzak	22.000.000	Erreserba Legala	2.500.000
Makineria	5.000.000	Borondatezko erreserba	6.000.000
- Eraikuntzen AM	(15.000.000)		
- Makinariaren AM	(1.000.000)		
AKTIBO KORRIENTEA	5.000.000	PASIBO EZ KORRIENTEA	3.000.000
		PASIBO KORRIENTEA	500.000
GUZTIRA	18.000.000	GUZTIRA	18.000.000

Merkatal Erregistratzaileak izendatutako adituaren arabera, negozioaren arrazoizko balioa 25.000.000€koa da. Egoera Balantzea aztertuz, ondorengo gainbalioak onartu dira (balioespenak adituak egin ditu eta bazkide biek onartu dituzte):

- Lurrak 3.000.000€.
- Eraikuntzak 1.000.000€.
- Negozioaren gainontzeko balioa Merkataritza Fondoari egotziko zaio.

ESKATZEN DENA: Aurreko eragiketak kontabilizatzea.

Irakaskuntzarako materiala egingo duen **"IKASLE, S.A."** enpresa sortu dute bi bazkidek 3.000.000€ko kapital eskrituratuarekin (300.000 akzio; BN= 10€; jaulkipena parean). Proportzio berdinean harpidetuko dute.

Lehenengo bazkideak PRIMARIA, S.A. enpresarekin egingo du dagokion despoltsapena. Enpresa honen egoera balantzea une honetan hauxe izan zen:

EGOERA BALANTZEA, PRIMARIA, S.A.			
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO EZ	300.000	FONDO PROPIOAK	260.000
KORRIENTEA			
Lurrak	150.000	Kapital Soziala	200.000
Eraikuntzak	150.000	Jaulkipen Prima	20.000
		Erreserba Legala	20.000
		Ekitaldiko Emaidza	20.000
AKTIBO KORRIENTEA	190.000	PASIBO EZ KORRIENTEA	100.000
Lehengaia	47.500		
Salgaiak	47.500	PASIBO KORRIENTEA	130.000
Zordunak	47.500		
Diruzaintza	47.500		
GUZTIRA	490.000	GUZTIRA	490.000

PRIMARIA sozietatea merkatal erregistratzaileak izendatutako adituak 800.000€tan balioetsi du. Lurretan 50.000€ko eta eraikuntzetan 75.000€ko gainbalioak onartu dira. Despoltsatu gabe geratzen den zenbatekoa inbertsio finantzarioen bidez egingo da lau urteko epean.

Bigarren bazkideak legeak adierazitako minimoa eskudirutan despoltsatzen du. Gainontzekoa, eskudirutan ere, hurrengo ekitaldi hasieran egingo da.

ESKATZEN DENA: Eragiketak kontabilizatu beharrezkoak diren kalkuluak eta azalpenak emanez.

3. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Bakarka eta 3ko taldeetan	
Jarduera-mota: C2, C3	
Jarduera hau bateratze-saio batez amaituko da	

Garapena:

Ez-presentziazko lanean ariketak ebatziko dituzue. Baliteke, galderaren bat erantzuteko "Finantza Kontabilitatea" ikasgaiari emandako kontzeptuak gogoratu behar izatea.

Ondoren, gelan, 3ko taldeetan 45 minutuan, proposamen desberdinak eztabaidatuko dituzue, azken 45 minutuetan bateratze-lan batez amaitzeko ikasle guztien eta irakaslearen artean.

Hiru lagunek "**TRIO DE AMIGOS, S.A.**" sozietatea eratuko dute aldibereko eraketa prozeduraren bidez. Kapital soziala 27.000 titulu arruntekin osatuko da bakoitzaren balio nominala 10€ izanik. Jaulkipena %230ean egingo da.

Tituluak ondorengo proportzioan harpidetuko dira:

- Lehenengo bazkideak 20.000 akzio. Legeak adierazitako despoltsapen minimoa eskudirutan egingo du.
- Beste bi bazkideen kasuan, bakoitzak 3.500 titulu. Despoltsapena diruzkoa ez den ekarpenekin gauzatuko da.

Batek eraikuntza bat emango du, merkatal erregistratzaileak izendatutako adituak 80.000€tan balioetsiz.

Besteak inbertsio finantzarioak emango ditu, merkatal erregistratzaileak izendatutako adituak 60.000€tan balioetsiz.

Gainontzeko despoltsapenak eskudirutan egingo dira.

Urte bukaeran, estatutuek adierazitakoa betez, lehenengo dibidendu pasiboa eskudirutan ordaintzen da (BNren %50 galdatu da).

ESKATZEN DENA:

- 1) Aurreko eragiketak kontabilizatzea.
- 2) Sozietate berriaren Egoera Balantzea osatzea.
- 3) Ondorengo galderak erantzutea, erantzuna arrazoituz:
 - a) Despoltsapena eskudirutan egiten duen bazkidearen kasuan, akzioak beste bazkide bati %210ean saltzea erabakiko balu:
 - Salmenta legez kontrakoa izango litzateke? Kontuan izan salmenta balio nominalaren gainetik egiten dela eta hasierako partaidetza-proportzioa apurtu egiten dela.

- b) Dibidendu pasiboaren ondoren, despoltsapena eskudirutan egiten duen bazkideak akzioak hirugarren bati %95ean saldu dizkio. Beste bi bazkideek salatu egin dute tituluak ezin direlako balio nominalaren azpitik saldu eta gainera, guztiz despoltsatu gabe daudelako. Ondo jokatu dute bazkide bi hauek?

20X0ko urtarrilaren 1ean, lau bazkidek **CUATRO S.A.** sozietatea sortzea erabakitzen dute. Hasierako kapitala 4 milioi eurotakoa izango da, 10€ko balio nominaleko akzioekin. Akzioak lau bazkideen artean proportzio berdinean harpidetuko dira eta 20€tan jaulkituko dira.

Bi bazkidek, dagokien despoltsapena diruzko ekarpenean egingo dute legeak adierazitako minimoan. Beste bi bazkideek, aldiz, DOS, S.A. sozietatearekin. Sozietate honen Egoera Balantzea une honetan:

EGOERA BALANTZEA, DOS, S.A.			
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO EZ KORRIENTEA		FONDO PROPIOAK	
Ibilgetu Ukiezina	500.000	Kapital Soziala	600.000
Ibilgetu Materiala	2.000.000	Erreserba Legala	350.000
		Borondatezko Erreserba	1.650.000
		Ekitaldiko Emaidza	150.000
AKTIBO KORRIENTEA		PASIBO EZ KORRIENTEA	
Izakinak	150.000	Epe Luzeko Zorrak	150.000
Zordunak	450.000	PASIBO KORRIENTEA	
Diruzaintza	50.000	Hornitzaileak	150.000
		Epe Laburreko Zorrak	100.000
GUZTIRA	3.150.000	GUZTIRA	3.150.000

DOS, S.A. sozietatearen balioespena merkatal erregistratzaileak izendatutako adituak egin du 3.250.000€tan balioetsiz. Ibilgetu materialean 100.000€ko gainbalioak onartu dira.

Despoltsatu gabe geratu diren zenbatekoak eskudirutan egingo dira eta oraindik ez da data zehatzik zehaztu.

Ekitaldi bukaeran, ekitaldiko emaitza 100.000€takoa izan zen eta ahalik eta dibidendurik gehiengoa banatzea erabaki zen (indarrean dagoen legearekin bat etorriz) administrazio kontseiluan.

ESKATZEN DENA:

- 1) Enpresaren eraketa-idazpena egin, zenbateko ezberdinei buruzko azalpenak eman.
- 2) Ekitaldi bukaeran akzioen balio teorikoa zein den adierazi.
- 3) Emaitzaren banaketaren idazpena proposatu. Azaldu zenbateko bakoitzaren arrazoiak eta kalkuluak (ekitaldi bukaeran I+G 20.000€koa zen).
- 4) Bazkide bakoitzari dagokion dibidenduaren kopurua adierazi.
- 5) 20X1eko Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-Orria egin.

CUATRO, S.A.	Eskrituratu tako Kapitala	Kapitala galdatu gabe	Jaulkip. prima	Ekitaldiko emaitza	GUZTIRA
A. 200X-2 EKIT AZKEN SALDOA					
I. 200X-2 eta aurrek. irizp aldateteng doik II. 200X-2 eta aurrek. akatsengatik doik					
B. 200X-1 HASIERAKO SALDO DOITUA					
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira II. Bazkide eta jabeekin eragiketak 1. Kapital-zabalkuntzak 2. (-) Kapital-murrizketak 3. Ftza pasiboak OG bihurtzea 4. (-) Dibidenduen banaketa 5. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak) 6. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa) 7. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin III. Beste zenbait OGko eragiketa					
C. 200X-1 EKIT AZKEN SALDOA					
I. 200X-2 irizpide aldateteng doikuntzak II. 200X-1 akatsengatik doikuntzak					
D. 200X HASIERAKO SALDO DOITUA					
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira II. Bazkide eta jabeekin eragiketak 8. Kapital-zabalkuntzak 9. (-) Kapital-murrizketak 10. Ftza pasiboak OG bihurtzea 11. (-) Dibidenduen banaketa 12. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak) 13. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa) 14. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin III. Beste zenbait OGko eragiketa					
E. 200X EKITALDIKO AZKEN SALDOA					

4. JARDUERA	
Presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Bakarka	
Jarduera-mota: C8	
EBALUAGARRIA	

Garapena:

Bakarka, 45 minutuan IRAKASLEAK EMANGO DIZUN ariketa ebatzi. Beste 45 minutuan zuzenketa gurutzatuak egingo dira irakasleak komentatuta.

6. JARDUERAK 3. GAIRAKO "KAPITAL SOZIALAREN ZABALKUNTZA"

Enpresa bateko bazkideek bere eraketan jarritako hasierako kapitalean, eman daitezke aldaketak?

Elkarteen eraketako ondare-konposizioa ezagututa, kapital sozialaren gehikuntza egiteko egoerak aztertuko dira.

IKASLEAREN DEDIKAZIOA 3 GAIKO JARDUERETAN			
JARDUERA	PRESENTZIAZKO LANA	EZ-PRESENTZIAZKO LANA	GUZTIRA
A5	90'	60'	150'
A6	90'	60'	150'
A7	90'	60'	150'
A8	0'	60'	60'
A9	0'	90'	90'
A10	90'	0'	90'
ORDUAK GUZTIRA	6 ordu	5,5 ordu	

Ikaskuntza-emaitzak:

✓ **Materia:**

- Kapital sozialaren zabalkuntza bultzatzen duten arrazoiak
- Kapital sozialaren zabalkuntza egiteko baldintza legalak: primak, lehentasunezko harpidetza-eskubideak...
- Kapital sozialaren zabalkuntza egiteko modalitateak: akzio-kopurua handitu; Balio Nominala aldatu
- Ordaina: diruzkoa; ez diruzkoa; kredituak konpentsatzeko; erreserbak kapitalizatu...
- Akziodun zaharrari babesa: prima; lehentasunezko harpidetza-eskubidea
- Kontabilitate Doikuntzak

✓ **Zeharkakoak:**

- IKTeak menperatu informazioa bilatzeko
- Talde-lana
- Hizkuntza teknikoa menperatu

Emaitzen Adierazleak:

Jarduera guztiek emaitza berak dituzte helburu, nahiz eta maila desberdinean.

5. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
3ko taldeak	
Jarduera-mota: C2, C3, C6	
Jarduera hau bateratze-saio labur batez amaituko da	

Ez-presentziazko lana:

- a) Irakurri arretaz PALABRA S.A elkartearen egoera eta komentatu nola finantzatuko lukeen duen proiektu berriak.
- b) Irakurri Kapitaleko Sozietateen Legearen (Errege Dekretu Legegilea 1/2012, BOE 161 zk.) Testu Bategineko 285-316 artikulua, Kapital Sozialaren zabalkuntza ingurukoak (akzioak eta bere balioa), aipatutako kontzeptuen laburpena eginez.
- c) CREATIVIDAD S.A. eragiketa ebatzi.

Presentziazko lana:

Komentatu, hiruko taldeetan, adibidearen ondorioak eta laburpenaren edukia. Taldeak izan ditzakeen zalantzak irakaslearekin argituko dira.

Garapena:

Bakarka eta ez-presentziazko moduan:

- a) PALABRA S.A.ren egoera aztertuko duzue eta balizko irtenbideak idatzi.
- b) Testu legala irakurriko duzue aipatutako kontzeptuak laburtuz.
- c) CREATIVIDAD sozietatearen kasua egingo duzue.

Ondoren, 30 minutuan, gelan eta 3ko taldeetan aurreko erantzunak eztabaidatuko dituzue. Segidan, 60 minutuan, eztabaida irakaslearen eta ikasle guztien artean egingo da.

Alderdi batzuk ez dira agertzen araudian, beraz, irakasleak beharrezkoak iruditzen zaizkion arloen azalpen laburra egingo du.

2015eko urtarrilaren 1ean, **PALABRA, S.A.** enpresak, merkatura produktu berri bat atera nahi du. Behar den finantzazioa 500.000 eurokoa da.

Madriilen beste egoitza bat irekitzeko aukera ere aztertzen ari da, eta egindako balioestapen kalkuluen arabera, gutxieneko inbertsioa 2.000.000 €koa litzateke.

ENPRESA HONEK NOLA FINANTZATUKO LITZATEKE AIPATUTAKO PROIEKTUAK?

TESTU BATEGINA IRAKURRITA, ADIERAZI KONTZEPTU HAUEK:

- Kapital sozialaren gehikuntza bultzatzen duten arrazoiak
- Kapital sozialaren gehikuntza egiteko baldintza legalak: primak, lehentasunezko harpidetza-eskubideak...

- Kapital sozialaren gehikuntza egiteko modalitateak: akzio-kopurua handitu, Balio Nominala aldatu
- Ordaina: diruzkoa; ez-diruzkoa; kredituak konpentsatzeko; erreserbak kapitalizatu...
- Akziodun zaharra babestu: Prima; Lehentasunezko Harpidetza Eskubidea

CREATIVIDAD, S.A. sozietateak ondorengo Egoera Balantzea dauka:

CREATIVIDAD, S.A.		EGOERA BALANTZEA	
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO KORRIENTEA eta EZ KORRIENTEA	14.700.000	<u>ONDARE GARBIA</u>	<u>10.100.000</u>
		Kapital Soziala	7.500.000
		Erreserba Legala	750.000
		Estatutu Erreserba	750.000
		Borondatezko Erreserba	1.000.000
		Gaineratikoa	100.000
		<u>PASIBOA</u>	<u>4.600.000</u>
GUZTIRA	14.700.000	GUZTIRA	14.700.000

BN= 10€ izanik, zein da titulu bakoitzaren balio teorikoa? Zergatik?

CREATIVIDAD, S.A. sozietateak kapital-zabalkuntza egingo du balio nominal berdineko 150.000 titulu berri jaulkituz. %100 despoltsatuko dira eta ez dago zabalkuntza gasturik.

EGOERA BALANTZEA (zabalkuntza ondoren)				<u>ONDARE GARBI</u> Aren	<u>11.600.000</u>
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa		<u>desqlosea</u>	
AKTIBOA	16.200.000	ONDARE GARBIA	11.600.000	Kapital Soziala	
		PASIBOA	4.600.000	Jaulkipen PRIMA (PAREAN)	
GUZTIRA	16.200.000	GUZTIRA	16.200.000	Erreserba Legala	
				Estatutu Erreserba	
				Borondatezko Erreserba	
				Gaineratikoa	

- Zein da akzio bakoitzaren balio teorikoa zabalkuntza egin ondoren? Zergatik?
- Zer gertatu da balio teorikoen artean? (zabalkuntzaren aurretik eta ondoren). Zergatik?

Akziodun zaharraren egoera	Lehen	Ondoren
Partaidetza ekonomikoa		
Partaidetza politikoa		

Akziodun berri batek, 10€ ordainduz, _____ balioa daukan akzioa eskuratzen du.

Akziodun zaharra babesteko legeak dituen neurriak bi hauek dira:

- Lehentasun Harpidetza Eskubidea
- Jaulkipen Prima

6. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
3ko taldeak	
Jarduera-mota: C2, C3	
Jarduera hau bateratze-saio batez amaituko da	

Garapena:

Ez-presentziazko lanean ariketak ebatziko dituzue.

Ondoren, gelan, 3ko taldeetan 45 minutuan proposamen desberdinak eztabaidatuko dituzue, azken 45 minutuetan bateratze-saio batez amaitzeko ikasle guztien eta irakaslearen artean.

CREATIVIDAD, S.A. sozietatean (aurreko jardueran landutako sozietatea):

- 100 akzio zahar dituen akziodunari zenbat eskubide dagozkio? Eta, zenbat akzio berri harpidetu ditzake?
- Lehentasun Harpidetza Eskubidearen zenbatekoa kalkulatu.
- Sozietatearen akziodun zahar batek 100 akzio ditu. Azaldu zenbat eskubide dagozkion eta zein izango den bere ondarea kapital-zabalkuntzara baldin badoa eta zein, ez badoa.
- Akziodun berri batentzat, akzio bat erosteak ze kostu adierazten du?

SOLIDAMAR, S.A. sozietateak ondorengo kontuak aurkezten ditu bere fondo propioen artean:

Kapital Soziala (BN = 10€; 7.000 titulu; % 100 despoltsatuta)	70.000
Jaulkipen Prima	1.000
Erreserba Legala	9.000
Borondatezko Erreserba	5.000
Guztira	85.000
GUZTIRA FONDO PROPIOAK	85.000
GUZTIRA ONDARE GARBIA	85.000

Enpresa honek kapital-zabalkuntza egitea erabaki du, proportzioa hau izanik: titulu berri bat 7 zaharren trukean, parean. Zabalkuntzaren zein zenbateko izan daiteke guztiz liberatua?

- EMSen kasuan?
- SAren kasuan?
 - Erreserba Legala erabili gabe
 - Erreserba legala erabiliz (legeak adierazitako mugak betez).

BONANZA, S.A. sozietatearen bazkideen batzar orokorrak 9.600.000€ko kapital-zabalkuntza egitea onartu du. 960.000 titulu berri igorriko dira (BN= 10€, zaharren berdina).

Zabalkuntza egiteko proportzioa: 25 akzio zaharren truke 12 berri emango dira.

Akzio berriak %60 liberatuak daude, erreserba libreen bidez, eta gainontzekoa eskudirutan despoltsatuko da.

Eskatzen dena:

1. Kapital-zabalkuntza egin aurretik, zein zen kapital sozialaren zenbatekoa?
2. Kontabilizatu zabalkuntzaren eragiketa.

INICIATIVA S.A. sozietatearen kapital-zabalkuntza kontabilizatu. Datuak hauek dira:

KS = 5.000.000€, (BN = 5€; 1.000.000 tit.; despoltsapena 100%.

Kapital-zabalkuntza BN 10€ra handituz egingo da.

- A) Despoltsapenaren %50, eskudirutan egingo da.
- B) Despoltsapenaren gainontzeko %50, lur batzuen bidez egingo da. Lurren balioa merkatal erregistratzaileak izendaturiko adituaren arabera 2.500.000€koa da.

7. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
3ko taldeak	
Jarduera-mota: C2, C3	
Jarduera hau bateratze-saio batez amaituko da	

Garapena:

Ez-presentziazko lanean ariketak ebatziko dituzue.

Ondoren, gelan 3ko taldeetan 45 minutuan, proposamen desberdinak eztabaidatuko dituzue, azken 45 minutuetan bateratze-saio batez amaitzeko ikasle guztien eta irakaslearen artean.

CARTAS Y REYES, S.A. sozietateak X1/12/31 urtean ondorengo EGOERA BALANTZEA aurkeztu du:

EGOERA BALANTZEA, Cartas y Reyes, S.A.			
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO EZ KORRIENTEA	311.250	FONDO PROPIOAK	971.250
Lurrak	45.000	Kapital Soziala	750.000
Eraikuntzak	225.000	Bazkideak, galdatu gabeko despol.	(25.500)
Garraio Elementuak	75.000	Jaulkipen Prima	120.000
Altzariak	37.500	Erreserba Legala	60.000
-IM-ren Amortizazio	(71.250)	Borondatezko Erreserba	42.750
Metatua		Ekitaldiko Emaiza	(6.000)
		-Konturako dibidendua	
AKTIBO KORRIENTEA	812.325	PASIBO EZ KORRIENTEA	
Akziodunak, galdatutako depolts	4.500		
Salgaiak	138.750	PASIBO KORRIENTEA	152.325
-Salgaien Narriadura	(12.750)	Hornitzaileak	81.150
Zordunak	392.625	OP Hartzekdouna	71.175
Diruzaintza	283.575		
Aldizkapen doikuntzak	5.625		
GUZTIRA	1.123.575	GUZTIRA	1.123.575

CARTAS Y REYES, S.A. sozietatearen Bazkideen Batzar Orokorrak 150.000€ko kapital-zabalkuntza onartu du. Horretarako balio nominal berdineko (10€) 15.000 akzio berri igorriko dira.

Zabalkuntza egiteko proportzioa: 5 akzio zaharren truke berri bat emango da. Jaulkipena %105ean egingo da.

Jaulkipenaren %50 liberatuta egongo da (erreserba legalarekin -legeak onartutako zenbatekoan- eta borondatezko erreserbarekin). Gainontzekoa diruzko despoltsapenarekin harpidetuko da.

ESKATZEN DENA:

- 1) Kalkulatu ondorengo zenbatekoak, beharrezkoak diren azalpenak emanez:
 - a. Zabalkuntzan erabili ahal den erreserba legalaren zenbatekoa.

- b. Zabalkuntzan erabiliko den borondatezko erreserbaren zenbatekoa.
- c. Akziodun berri batek, akzio berria harpidetzeko despoltsatu beharrekoa. Azaldu harpidetza eskubideari dagokion zenbatekoa (akziodun zaharrari ordainduko zaiona) eta akzioari dagokiona (sozietateari ordainduko zaiona).
- d. Akziodun zahar batek, akzio berria harpidetzeko despoltsatu beharrekoa. Azaldu harpidetza eskubideari dagokion zenbatekoa (akziodun zaharrari ordainduko zaiona) eta akzioari dagokiona (sozietateari ordainduko zaiona).
- 2) Zabalkuntzaren eragiketa kontabilizatu
- 3) Zabalkuntza ondoren enpresaren ondare garbia zein den adierazi eta kalkulatu akzio bakoitzaren balio teorikoa.
- 4) 20X1eko Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-Orria egin.

CARTAS Y REYES	Eskrituratu tako Kapitala	Kapitala galdatu gabe	Jaulkip. prima	Errese rb	Aurreko Ekitaldieta ko emaitzak	Ekitaldi ko emaitza	(konturako Dibidendua	GUZTI RA
A. 200X-2 EKIT AZKEN SALDOA								
I. 200X-2 eta aurrek. irizp. aldateteng doik								
II. 200X-2 eta aurrek. akatsengatik doik								
B. 200X-1 HASIERAKO SALDO DOITUA								
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira								
II. Bazkide eta jabeekin eragiketak								
1. Kapital-zabalkuntzak								
2. (-) Kapital-murrizketak								
3. Ftza pasiboak OG bihurtzea								
4. (-) Dibidenduen banaketa								
5. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak)								
6. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa)								
7. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin								
III. Beste zenbait OGko eragiketa								
C. 200X-1 EKIT AZKEN SALDOA								
I. 200X-2 irizpide aldateteng doikuntzak								
II. 200X-1 akatsengatik doikuntzak								
D. 200X HASIERAKO SALDO DOITUA								
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira								
II. Bazkide eta jabeekin eragiketak								
8. Kapital-zabalkuntzak								
9. (-) Kapital-murrizketak								
10. Ftza pasiboak OG bihurtzea								
11. (-) Dibidenduen banaketa								
12. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak)								
13. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa)								
14. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin								
III. Beste zenbait OGko eragiketa								
E. 200X EKITALDIKO AZKEN SALDOA								

8. JARDUERA	
Ez-Presentziakoa	Aurreikusitako denbora 60 minutu
Bakarka edo taldeka	
Jarduera-mota: C2, C3	

Garapena:

Ez-presentziakoz lanean ariketak ebatziko dituzue. Zalantzarik izatekotan, irakasleak tutoretzetan argituko ditu.

MUNDIAL, SA, sozietatea 2 bazkideren artean (proportzio berdinean) sortu zen enpresa da. 2010ean ondorengo Egoera Balantzea aurkeztu zuen:

EGOERA BALANTZEA, MUNDIAL, S.A.			
Aktiboa		Ondare garbia eta Pasiboa	
AKTIBO EZ KORRIENTEA	80.000	ONDARE GARBIA	41.000
(25) Ibilgetu Finantzarioa	45.000	(100) Kapital Soziala	90.000
(21) Ibilgetu materiala	35.000	(103) Bazkid. Galdatu gab. Desp.	(9.000)
		(112) Erreserba Legala	18.000
		(121) Aurreko Ekit. Em. Neg.	(70.000)
		(113) Borondatezko Erreserba	3.000
		(129) Ekitaldiko emaitza	7.000
		(130) Subentzioak	2.000
AKTIBO KORRIENTEA	20.000	PASIBO EZ KORRIENTEA	0
(43) (44) Zordunak	15.000		
(57) Diruzaintza	5.000	PASIBO KORRIENTEA	59.000
GUZTIRA	100.000	GUZTIRA	100.000

ESKATZEN DENA:

1.- Ondarearen informazioan oinarrituz, egiaztatu enpresa hau oreka finantzarioan dagoen eta izan ditzakeen ondorio legalak.

2010/12/01ean egiteko zeuden despoltsapen guztiak egiten dira.

2.- Kontabilizatu eragiketa.

2011/03/01ean, sozietatearen desoreka finantzarioaren aurrean, kapital-zabalkuntza bat egitea erabakitzen da. Horretarako, bi bazkideek proportzio berdinean harpidetuko dituzte 1.000 akzio berri (parean, BN=10€). Bazkide batek legeak adierazitako minimoa eskudirutan despoltsatzen du. Beste bazkideak SUDAFRICA, SA sozietatearen 600 akzio ematen ditu (BN=5€). MUNDIAL sozietateak akzio hauek epe laburrean negoziatzeko bezala sailkatzen ditu eta 5.000€tan balioetsi ditu aditu batek.

Zabalkuntzaren gastuak 2.000€.

3.- LHEren balioa kalkulatu. Azaldu zer esan nahi duen LHEak, eta bere ikurrak (positiboa edo negatiboa).

4.- Kontabilizatu kapital-zabalkuntza.

5.- Osatu 2001ko Ondare Garbiaren Aldaketen Egoera-Orria.

MUNDIAL	Eskrituratu tako Kapitala	Kapitala galdu gabe	Jaulkip. prima	Errese rb	Aurreko Ekitaldieta ko emaitzak	Ekitaldi ko emaitza	(kont. Dibid)	GUZTIR A
A. 200X-2 EKIT AZKEN SALDOA								
I. 200X-2 eta aurrek. irizp. aldateteng doik								
II. 200X-2 eta aurrek. akatsengatik doik								
B. 200X-1 HASIERAKO SALDO DOITUA								
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira								
II. Bazkide eta jabeekin eragiketak								
1. Kapital-zabalkuntzak								
2. (-) Kapital-murrizketak								
3. Ftza pasiboak OG bihurtzea								
4. (-) Dibidenduen banaketa								
5. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak)								
6. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa)								
7. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin								
III. Beste zenbait OGko eragiketa								
C. 200X-1 EKIT AZKEN SALDOA								
I. 200X-2 irizpide aldateteng doikuntzak								
II. 200X-1 akatsengatik doikuntzak								
D. 200X HASIERAKO SALDO DOITUA								
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira								
II. Bazkide eta jabeekin eragiketak								
8. Kapital-zabalkuntzak								
9. (-) Kapital-murrizketak								
10. Ftza pasiboak OG bihurtzea								
11. (-) Dibidenduen banaketa								
12. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak)								
13. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa)								
14. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin								
III. Beste zenbait OGko eragiketa								
E. 200X EKITALDIKO AZKEN SALDOA								

9. JARDUERA	
Ez-Presentziatzakoa	Aurreikusitako denbora 60 minutu
Bakarka edo taldeka	
Jarduera-mota: C2, C3	

Garapena:

Ez-presentziatzako lanean ariketak ebatziko dituzue. Zalantzarik izatekotan, irakasleak tutoretzetan argituko ditu.

HOGUITAMAIIKA, SA, sozietatea 2 bazkideren artean (proportzio berdinean) sortu zen enpresa da. 2010ean ondorengo Egoera Balantzea aurkeztu zuen:

EGOERA BALANTZEA, HOGUITAMAIIKA 31, S.A.				
Aktiboa			Ondare garbia eta Pasiboa	
AKTIBO KORRIENTEA	EZ		ONDARE GARBIA	
(25) Ibilgetu		80.000	(100) Kapital Soziala	90.000
Finantzarioa		70.000	(103) Bazkid. Galdatu gab. Desp.	(9.000)
(21) Ibilgetu materiala			(112) Erreserba Legala	18.000
			(113) Borondatezko Erreserba	3.000
			(129) Ekitaldiko emaitza	7.000
			(130) Subentzioak	2.000
AKTIBO KORRIENTEA			PASIBO EZ KORRIENTEA	0
(43) (44) Zordunak		15.000		
(57) Diruzaintza		5.000	PASIBO KORRIENTEA	59.000
GUZTIRA		170.000	GUZTIRA	170.000

2011/03/01ean, kapital-zabalkuntza bat egitea erabakitzen da. Horretarako, bi bazkideek proportzio berdinean harpidetuko dituzte 1.000 akzio berri (BN=10€ eta jaulkipena parean egiten da). Bazkide batek eskudirutan despoltsatzen du dagokion guztia. Beste bazkideak ondasunak ematen ditu eta aditu batek 5.000€tan balioetsi ditu. Guztia despoltsatu behar denez, diferentziarik balego, dirutan egingo da.

- 1. Kontabilizatu kapital-zabalkuntza.**
- 2. Adierazi sozietatearen ondarea, kapital-zabalkuntza egin aurretik eta ondoren.**
- 3. Zein da akzioen balio teorikoa zabalkuntza aurretik? Eta ondoren?**
- 4. Kalkulatu LHEren balioa.**
- 5. 90 akzio zahar dituen akziodunak, zabalkuntzara joan nahi badu, zein despoltsapen egingo du? Zein izango da bere aberastasuna?**
- 6. 90 akzio zahar dituen akziodunak, zabalkuntzara joan nahi ez badu, zein izango da bere aberastasuna?**
- 7. Akziodun berri batek 90 akzio berri erosi nahi baditu, zenbat ordaindu behar du? Eta nori ordainduko dio?**

Kapital-zabalkuntza liberatuta egin nahi bada:

8. Zein kantitatetan liberatuko litzateke?

9. Adierazi sozietatearen ondarea, kapital-zabalkuntza egin ondoren (liberatua balitz).

10. Osatu 2011ko Ondare Garbiaren Aldaketan Egoera-Orria GUZTIZ LIBERATUA DEN KASURAKO.

HOGUITAMAIIKA, S.A.	Eskrituratuta ko Kapitala	Kapitala galdatu gabe	Jaulkip. prima	Erres.	Aurreko Ekitaldietak o emaitzak	Ekita emaitza	(konturako Dibidendua	GUZTIRA
A. 200X-2 EKITA AZKEN SALDOA								
I. 200X-2 eta aurrek. irizp. aldateteng doik								
II. 200X-2 eta aurrek. akatsengatik doik								
B. 200X-1 HASIERAKO SALDO DOITUA								
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira								
II. Bazkide eta jabeekin eragiketak								
1. Kapital-zabalkuntzak								
2. (-) Kapital-murrizketak								
3. Ftza pasiboak OG bihurtzea								
4. (-) Dibidenduen banaketa								
5. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak)								
6. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa)								
7. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin								
III. Beste zenbait OGko eragiketa								
C. 200X-1 EKITA AZKEN SALDOA								
I. 200X-2 irizpide aldateteng doikuntzak								
II. 200X-1 akatsengatik doikuntzak								
D. 200X HASIERAKO SALDO DOITUA								
I. Jasotako gastu eta sarrerak guztira								
II. Bazkide eta jabeekin eragiketak								
8. Kapital-zabalkuntzak								
9. (-) Kapital-murrizketak								
10. Ftza pasiboak OG bihurtzea								
11. (-) Dibidenduen banaketa								
12. Akzio edo partaidetza propioekin eragiketak (garbiak)								
13. Negozio konbinazio baten ondoriozko OG gehikuntza (murrizketa)								
14. Beste zenbait eragiketa bazkide eta jabeekin								
III. Beste zenbait OGko eragiketa								
E. 200X EKITALDIKO AZKEN SALDOA								

10. JARDUERA	
Presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Bakarka	
Jarduera-mota: C8	
EBALUAGARRIA	

Garapena:

Bakarka, 45 minutuan IRAKASLEAK EMANGO DIZUN ariketa ebatzi. Beste 45 minutuan zuzenketa gurutzatuak egingo dira irakasleak komentatuta.

7. JARDUERAK 4 GAIRAKO "KAPITAL SOZIALAREN MURRIZKETA"

Enpresa bateko bazkideek bere eraketan jarritako hasierako kapitalean, eman daitezke aldaketak?

Elkarteen eraketako ondare-konposizioa ezagututa, kapital sozialaren murrizketa egiteko egoerak aztertuko dira.

IKASLEAREN DEDIKAZIOA 2 GAIKO JARDUERETAN

JARDUERA	PRESENTZIAZKO LANA	EZ-PRESENTZIAZKO LANA	GUZTIRA
A11	90'	60'	150'
A12	90'	60'	150'
A13	90'	60'	150'
A14	0'	90'	90'
A15	90'	--	90'
ORDUAK GUZTIRA	6 ordu	4,5 ordu	

Ikaskuntza Emaitzak:

✓ **Materia:**

- Kapital sozialaren murrizketa bultzatzen duten arrazoiak: desoreka finantzarioa eta beste batzuk.
- Kapital sozialaren murrizketa egiteko baldintza legalak eta kapital-murrizketaren helburuak: ordainketak itzultzea; zintzilik dauden ordainketak barkatzea; dibidendu pasiboak kentzea; oreka finantzarioa bilatzea...
- Kapital sozialaren murrizketa egiteko modalitateak: akzio kopurua murriztea; Balio Nominala aldatzea
- Hartzekodunen aurkaritza-eskubidea
- Akordeoi-eragiketak
- Auto-zorroa
- Kontabilitate-doikuntzak

✓ **Zeharkakoak:**

- IKTeak menperatu informazioa bilatzeko
- Talde-lana
- Hizkuntza teknikoa menperatu

Emaitzen Adierazleak: Jarduera guztiek emaitza berak dituzte helburu, nahiz eta maila desberdinean.

11. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Bakarka eta 3ko taldeetan	
Jarduera-mota: C2, C3, C6	
Jarduera hau bateratze-saio labur batez amaituko da	

Ez-presentziazko lana:

- a) Irakurri Kapitaleko Sozietateen Legearen (Errege Dekretu Legegilea 1/2012, BOE 161 zk.) Testu Bategineko 317-345 artikulak, Kapital Sozialaren murrizketaren ingurukoak (akzioak eta bere balioa), eta aipatutako kontzeptuen laburpena egin.
- b) Aztertu adibide praktikoak kapital-murrizketaren eragiketak kontabilizatu.

Presentziazko lana:

Komentatu hiruko taldeetan ideiarik garrantzitsuenak, ondorioak laburbilduz. Beste hainbeste adibide praktikoetan.

Taldeak izan litzakeen zalantzak irakaslearekin argituko dira.

Garapena:

Bakarka eta ez-presentziazko moduan, dokumentua irakurri eta adierazitako kontzeptuak laburbilduko dituzue. Adibideak ere ebatziko dituzue.

Ondoren, gelan eta 3ko taldeetan 20 minutuan, landutako kontzeptuak eztabaidatuko dituzue eta beste 30 minutuan, bateratze-saioa egingo da ikasle guztien eta irakaslearen artean. Adibideekin prozedura berari jarraituko zaio: 3ko taldeetan balizko soluzioa eztabaidatuko da 20 minutuan eta bateratze-lana beste 20 minutuan.

TESTU BATEGINAREN IRAKURKETA EGINDA, ADIERAZI KONTZEPTU HAUEK:

- Kapital sozialaren murrizketa bultzatzen duten arrazoiak: desoreka finantzarioa eta beste batzuk.
- Kapital sozialaren murrizketa egiteko baldintza legalak eta kapital-murrizketa baten helburuak: ordainketak itzultzea; zintzilik dauden ordainketak barkatzea; dibidendu pasiboak kentzea; oreka finantzarioa bilatzea...
- Kapital sozialaren murrizketa egiteko modalitateak: akzio kopurua murriztea; Balio Nominala aldatzea.
- Hartzekodunen aurkaritza-eskubidea.
- Akordeoi-eragiketak.
- Auto-zorroa.

ALEGRIA S.A. sozietateak 10.000.000€ko kapital soziala dauka. %20an murriztea erabakitzen dute, zirkulazioan dauden akzioen balio nominala txikituz, horrela bazkideek egin gabeko despoltsapenengatik dituzten zorrak eliminatu egiten direlarik.

Kontabilizatu eragiketa zenbatekoak azalduz.

ILUSION, S.A. sozietateak 10.600.000€ko kapital soziala dauka. Ez dauka emaitza positiborik eta daukan erreserba bakarra Legezko Erreserba da 400.000€ko zenbatekoarekin.

Zenbatean murriztu ahal izango du kapitala gehienez erreserba legala sortzeko egiten bada?

SUEÑOS, S.A. sozietateak 200.000.000€ko kapital soziala dauka. Azaldu zein egoeretan egin behar duen kapital-murrizketa eta zein den horretarako daukan epea:

- a) Ondare Garbia* = 180.000.000€
- b) Ondare Garbia* = 120.000.000€
- c) Ondare Garbia* = 80.000.000€

MAGIA, S.A. sozietateak ondorengo saldoak aurkezten ditu:

(100) Kapital Soziala	10.000.000
(112) Erreserba Legala	1.200.000
(113) Borondatezko Erreserba	1.000.000
(121) Aurreko Ekitaldietako Emaitza Negatiboak	(3.400.000)

Aukerak:

- a) Enpresak, dauzkan aurreko ekitaldietako emaitza negatibo guztiak eliminatu nahi ditu erreserben %100 erabiliz.
- b) Enpresak, dauzkan aurreko ekitaldietako emaitza negatibo guztiak eliminatu nahi ditu erreserba legala legeak adierazitako minimoan mantenduz.

Enpresak ekitaldian 200.000€ko emaitza lortuko balu, dibidenduak banatu ahal zango lituzke?

12. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
3ko taldeak	
Jarduera-mota: C2, C3	
Jarduera hau bateratze-saio labur batez amaituko da	

Garapena:

Bakarka eta ez-presentziazko moduan, egoera guztiak ebatziko dituzue.

Ondoren, gelan eta 3ko taldeetan 45 minutuz, proposamen desberdinak eztabaidatuko dituzue, eta azken 45 minutuetan bateratze-saio bat egingo da ikasle guztien eta irakaslearen artean.

AMISTAD, S.A. sozietateak bere sozietatearen 200.000 akzio eskuratzen ditu. BN= 20€ eta eskuratze kostua 2.400.000€. Ondoren akzioak amortizatzea erabaki da.

Kontabilizatu eragiketak.

PAZ, S.A. sozietateak 200.000 akzio propio eskuratzen ditu. BN= 10€ eta eskuratze kostua 2.400.000€. Hilabete batzuk beranduago, akzioen erdia 1.500.000€tan saltzen du, salmenta gastuak 200.000€ izanik. Gainontzeko akzioak kapitala murriztuz amortizatu egiten dira.

Kontabilizatu eragiketak.

CHICOS,S.A.

Sozietateko akziodunen Ezohiko Batzar Orokorrak, ekainaren 8an, bigarren deialdian, aho batez onartu zituen, besteak beste, akordio hauek:

- 1º.- Kapitala murriztea 6.192.045 €tik 3.715.227 €ra, akzioen nominalaren murrizketaren bidez, 5 €tik XXXra bakoitza, erreserba boluntarioa dotatzeko helburuz.
- 2º.- Kapital sozial berria murriztea 3.715.227 €tik ? € kopurura arte, 247.682 akzio propioraino eskuratuta bere amortizaziorako, akziodunei ekarpenak itzultzen hasteko.
- 3º.- Ondorioz, adostu da estatutu sozialetako 5. artikulua aldatzea. Publiko egin da Kapitaleko Sozietateen Legearen indarreko testu bategineko 319 eta 334 artikuluetan ezarritakoa betez.

Bilbo, ekainaren 10

Administrazio Kontseiluko Presidentea

Aztertu galdera hauek (Oharra: Akzio guztiek balio nominal berdina dute eta bat zenbakitik aurrera zenbatuta daude):

1. Zein izango litzateke akzio bakoitzaren balio nominal berria 1. puntuan? Kontabilizatu eragiketa.

Nolakoa izango litzateke egoera, 1. puntuan proposatutako murrizketaren 250.000 € erreserba legala hornitzera bideratuz gero? Kontuan izan, erreserba kontu honen saldoa, murrizketaren aurretik, 300.000 €koa zela. Kontabilizatu eragiketa.

2. Zein izango litzateke kapital sozial berria 2. puntuan?

Kontabilizatu Eguneroko Liburuan 2. Puntuaren eragiketa guztiak. Horretarako, kontuan izan burtsan 200.000 titulu eskuratu direla 1.224.000 €ren truke; izan ere, gainerako 47.682 tituluak sozietatearen zorroan zeuden ekitaldi honen hasieratik eta balantzean 238.410 €ko balioa zuten.

13. JARDUERA	
Presentziazkoa eta Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
3ko taldeak	
Jarduera-mota: C2, C3	
Jarduera hau bateratze-saio batez amaituko da	

Garapena:

Bakarka eta ez-presentziazko moduan, egoera guztiak ebatziko dituzue.

Ondoren, gelan eta 3ko taldeetan 45 minutuz proposamen desberdinak eztabaidatuko dituzue, azken 45 minutuetan bateratze-saio batez amaitzeko ikasle guztien eta irakaslearen artean.

LUZ S.A. sozietateak X0/12/31n ondorengo kontuak aurkezten ditu:

EGOERA BALANTZEA, DOS, S.A.			
Aktiboa		Ondare Garbia eta Pasiboa	
AKTIBO KORRIENTEA	EZ	FONDO PROPIOAK	
Ibilgetu Ukiezina	450.000	Kapital Soziala	1.000.000
Ibilgetu Materiala	350.000	(BN=10€/tit)	145.000
		Erreserba Legala	30.000
		Estatutu Erreserba	100.000
		Jaulkipen Prima	250.000
		Borondatezko	(350.000)
		Erreserba	(200.000)
		Aurreko Ekit. Em.	
		Negat.	
		Ekitaldiko Emaitza	
AKTIBO KORRIENTEA		PASIBO KORRIENTEA	EZ
Izakinak	100.000	Epe Luzeko Zorrak	200.000
Zordunak	120.000		
Epe laburreko inbertsio	100.000	PASIBO KORRIENTEA	
Fin.	80.000	Hornitzaileak	50.000
Diruzaintza	25.000		
Aldizkapen doikuntzak			
GUZTIRA		GUZTIRA	

A. X1 ekitaldiko otsailaren 15ean, bazkideen batzar orokorrak, azken ekitaldietako emaitza negatiboak eliminatzeko administratzaileek aurkeztutako egitasmoa onartu du: kapital-zabalkuntza: parean akzio berriak; 2 akzio zaharren truke bat berria; %75ean liberatuta; %100ean despoltsatu beharra.

Halaber, bazkideen batzar orokorrak ekitaldiko emaitzak aurreko ekitaldietako emaitzetara eramatea ere onartu zuen.

ESKATZEN DENA:

1. Akzio bakar bakoitzari dagokion LHeren balioa kalkulatu.

2. Kontabilizatu eragiketak.
3. Akziodun berri batek zein kostu izango du zabalkuntzaren %10a eskuratzeko? Suposatu, beharrezkoak diren eskubideak lortzen dituela. Nori ordaindu beharko dio? Titulu berri bakoitzagatik ordaintzen duen balioa, zerekin dator bat?
4. Administrazio kontseiluak hasiera batean %100ean liberatuak izatea pentsatu zuen, baina arazo legalak ikusita ez zuten aurrera eraman. Ondo egin zuen? Zergatik?

OHARRA: ondorengo B eta C atalak egiteko, akzioak %75ean liberatuta daudela suposatuko da.

B.- X1eko uztailaren 1ean, bazkideen batzar orokorrak, balio nominala gutxituz kapital-murrizketa onartu zuen, galera guztiak estaltzeko. Erreserba legala, legeak onartzen duen minimoan mantentzea erabakitzen da.

ESKATZEN DENA:

5. Eragiketa kontabilizatu.
6. Kalkulatu Balio Nominal berria.
7. Erreserben %100a konpentsatu izan balitz, zein da balio nominal berria?

OHARRA: C atala egiteko, erreserba legalean legeak adierazten duena mantenduko da.

C. X1 urtean, LUZ sozietateak ez zuen esperotako emaitza lortu. Gainera, ekonomiaren atzerakada ikusita etorkizun txarra sumatzen da. X1 urtean 450.000€ko galerak izan ziren.

ESKATZEN DENA:

8. Komentatu enpresaren egoera X1 urtean eta zer aholkatzen duzun (itxiera, kapital-murrizketa...). Azaldu zergatiak.

14. JARDUERA	
Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 90 minutu
Jarduera-mota: C2, C3	

Garapena:

Ez-presentziazko lanean ariketak ebatziko dituzue (URIBITARTE eta PIO BAROJA).
 Zalantzarik izatekotan, irakasleak tutoretzetan argituko ditu.

URIBITARTE-31, SA sozietateak 2012ko ekitaldi itxieran honako **Ondare Garbia** aurkezten du:

BALIABIDE PROPIOAK	
(100) Kapital soziala	90.000
(103) Bazk., galdatu gabeko despoltsapenak	(20.000)
(110) Jaulkipen-prima	5.000
(112) Legezko erreserba	12.000
(121) Aurreko ek. Emaidza negatiboak	-46.500
(129) Ekitaldiko emaitza	-6.500
HARTUTAKO SUBENTZIOAK, DOHAINTZAK, ...	3.000
(130) Kapitaleko diru-laguntza ofizialak	3.000
GUZTIRA	

1. Enpresaren ondare-egoera komentatu, honek ekar ditzakeen ondorioak behar bezala komentatuz.

Egoera honen aurrean aurreko ekitaldiko itxierara arte metatuta dauden galerak saneatzea erabaki du (46.500 €). Honetarako, kapital soziala murriztuko du, erreserba legalean legez ahal den gehiena mantenduz. Hala ere aldeztu aurretik bere esku dauden baliabideak lortzen saiatuko da.

2. Kapitala murriztu aurretik, zer egin dezake?

3. Kapitaletik murriztu behar den zenbatekoa kalkulatu eta eragiketa kontabilizatu.

4. Kapital-murrizketaren ondorengo ondare-egoera komentatu eta enpresan bestelako arazo legalik ote dagoen adierazi.

PIO BAROJA 31 S.A, burtsan kotizatzen duen elkartearen ondarea elementu hauek osatzen dute:

FONDO PROPIOAK	
(100) Kapital soziala (BN= 10€)	90.000
(103) Bazkideak, despoltsatu gabeko ekarp.	(20.000)
(108) Akzio propioak (1.000 tit.)	(12.000)
(112) Erreserba legala	5.000
(113) Borondatezko erreserbak	3.000
(129) Ekitaldiko emaitza	3.500
ONDARE GARBIA GUZTIRA	

- 1) Enpresa honen ondare-egoera behar bezala komentatu.**
- 2) Enpresa honek kapital-murrizketa bat egin nahi du. Bazkideei despoltsapenak ez galdatzeko, ahal den neurrian akzio propioak erabili nahi ditu. Arazo legalik al dago? Eragiketa kontabilizatu eta azaldu murriztapen legalak.**
- 3) Kapital-murrizketa baino lehen eta ondoren, zein da akzioen balio nominala eta balio teorikoa? Eta enpresaren ondarea?**

15. JARDUERA	
Presentziazkoa	Aurreikusitako denbora 60 minutu
Bakarka	
Jarduera-mota: C8	
EBALUAGARRIA	

Garapena:

Bakarka, 45 minutuan IRAKASLEAK EMANGO DIZUN ariketa ebatzi.

Beste 45 minutuan zuzenketa gurutzatuak egingo dira irakasleak komentatuta.

8. JARDUERAK 2-3-4 GAIEN MINTEGIETARAKO

Segidako jarduera ikasgaiko gainerako gaiekin batera doa eta etengabe landuko da lauhilekoan zehar mintegietan eta ez-presentziazko moduan, lauko taldeetan.

16. JARDUERA- MINTEGIAK	
Ez-presentziazkoa	Aurreikusitako denbora:
5eko taldeak	
Jarduera-mota: C7	

Garapena

4 pertsonatako taldea osatu eta hautatu burtsan kotizatzen duen eta, aldi berean, bere kapital soziala aldatu duen sozietate baten Urteko Kontuak.

4 pertsonako taldeek, Mintegi klaseetan, irakasleak emandako azalpenak jarraituz hautatutako enpresaren txosten bat egingo dute. Mintegi bakoitzerako lan zehatza egin beharko da: enpresaren aurkezpena (bere jarduera, nongoa, etab.), urteko kontuetako Egoera Balantzea eta Galdu Irabazi Kontuak azaldu, Ondareko Elementuak azaldu, kapital-zabalkuntza edota murrizpena azaldu, mozkinen gaineko zerga azaldu, aktibo eta pasibo finantzarioak azaldu, etb. Kronograma eta mintegi bakoitzerako lana lehenengo mintegian azalduko da.

Azkeneko mintegian lan guztiaren aurkezpen laburra egin beharko da gainerako taldeen aurrean. Aurkezpenean bai irakasleak bai beste taldekideek galderak egin ditzakete.



Ipiñazar, I. (2014). Goi Finantza Kontabilitatea– IKD baliabideak 7 -<http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/ipinazar-7-2014-ik.pdf>



Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa): Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.